

BALOREZKO PROPOSAMENA

Produktuaren balio nagusia, konfidantza izango da, hau bezeroak produktuarekin duen gertutasunarekin garatzen da. Produktua modu herrikoiean saltzen da, hau da, denda fisiko bat edukiko du herrian bertan non produktua erosteko aukera egongo den, honek konfidantza transmititzen du.

Produktua gertuko lehengaiekin eginda egongo da, honek produktuari kalitate handi bat emango dio. Askotan produktu baten materialak oso garrantzitsuak izaten dira honen kalitatea eta segurtasuna lortu nahi ezkerro, arrazoi horregatik zintzil butil produktua gertutasuna erakusten duten materialekin eginda egongo da bezeroek segurtasuna sentitzeko.



Produktu honen erosotasuna asko nabarmentzen da, portatila baita. Bakoitzak nahi duen lekura eramateko aukera izango du inongo arazorik gabe. Jendearentzat hau oso erakargarria da eta beste produktuengatik bereizten du. Gainera, jende asko erosten hasten bada berezitasuna ezagunago bihurtuko da, eta jende gehiagok nahiko du ezaugarri hauek dituen botila bat edukitzea.

Produktu honek arazo asko gainditzen lagunduko du, adibidez, kirola egiten duen jendeak ez du mugitzeko beharrik izango ura edateko orduan, hasieran botila beteko du eta entrenatzen edota kirola egiten ari den bitartean botila eskura edukiko du era eroso eta seguru baten. Ez da botila erortzeko edota botila hartzeko unean makurtzeko beharrik egongo. Gainera, higieneari begiratuz ez da zikinduko, zeren eta, ez da lurrari inolako kontaktuan egongo. Arazo hauek konpontzen dituelako da berebiziko produktua.